

Istripu Asegurua

Aseguru-produktuari buruzko informazio-dokumentua

SEGUROS LAGUN ARO S.A., Espainian erregistratutako aseguru-entitatea (C-0572)



Banakako istripuen aseguru

Dokumentu honetan aseguruaren alderdi aipagarrienak laburbiltzen dira, eta, beraz, eskaintzen den informazioa ez da osoa. Informazio osoa aseguruaren proiektuan eta kontratuaren Baldintza Partikular eta Orokorretan jasoko da.

Zertan datza aseguru mota hau?

Baliabide ekonomikoak eta zerbitzuak eskaintzean, edozein eratako istripua gertatuz gero aseguratuak edo haren onuradunek izan ditzaketen ondorioak eta premiak arintzeko, eta, horrela, bizi-kalitatea hobetzea eta sendatzea erraztea. Hezurak hausteagatik eta erredurengatik kalte-ordaina emango da haien larritasunaren arabera eta bere onera etortzeko estimatutako aldiaren arabera berehalako eta kalitatezko osasun-laguntza ordaindu ahal izateko helburuarekin (diagnostikatzeko mediku-probak, ebakuntza kirurgikoak, protesiak, errehabilitazio-saioak, farmazia-gastuak,...), bai eta ospitaleratze-aldietan sortzen diren gastu handiagoei aurre egiteko ere. Autonomia eta mugikortasuna sustatzeko, ohiko etxebizitza egokitzea edo erreformatzea barne hartu da, hala gomendatzen duen lesio larririk edo ondoriorik egonez gero. Halaber, Aseguruaren eta haren familiaren esku jartzen da laguntza pertsonala emateko zerbitzua, langile gaituen bidezkoa, eguneroko bizitzako funtzioekin lotutako beharrezanez arreta emateko. Eta, amaitzeko, estaldurak aseguratuaren ondarea babestu ahal izango du hura hilez gero.



Zer aseguratzen da?

- ✓ Hezurak haustea.
- ✓ Erredurak.
- ✓ Ospitaleratzea.
- ✓ Etxebizitza egokitzea: Etxebizitzan egin beharreko lanak egitea istripuaren ondorengo autonomiari eta mugikortasunari laguntzeko, hala nola:
 - Komunak egokitzea.
 - Arrapalak eraikitzea.
 - Barandak instalatzea.
 - Pasatzeko atek zabaltzea.
- ✓ Eguneroko bizitzarako laguntza: Zerbitzu-programa honen bidez, langile kalifikatuek eguneroko bizitzako eginkizunetan laguntzen dute istripua gertatu ondoren; esate baterako:
 - Etxez etxeko laguntzailea.
 - Norberaren zainketarako laguntza.
 - Medikuairengana laguntzea eta botikak etxera bidaltzea.
 - Fisioterapia etxean.
 - Laguntzaile espezializatua ospitaleratzean zehar gauean zaintzeko.
 - Familiarteko baten ostatu- eta desplazamendu-gastuak ospitaleratutako Aseguratuari konpainia egiteko.
 - Konpainiako etxeko animaliak eta maskotak zaintzea.

Aukerako estaldura osagarria:

- Istripuzko heriotza.



Zer ez dago aseguraturua?

- ✗ Kontratu hau indarrean jarri aurretik gertatutako gaixotasunak eta istripuak, nahiz eta haien eragina kontratua indarrean egon bitartean azaldu.
- ✗ Estalitako istripuak gertatu eta 365 egun igaro ondoren azaltzen diren ondorioak.
- ✗ Aseguruaren Konpentsazio Partzuergoak estaltzen ez dituen ezohiko gertaerak.
- ✗ Aseguratuak nahita sortutako istripuak, bere buruaz beste egitea edo egiten saiatzea.
- ✗ Preskripzio medikoak edo ezarritako tratamendua ez betetzeagatik edo gaizki betetzeagatik sortutako ondorioak edo larriagotzeak.
- ✗ Aseguraturua edari alkoholdunen, drogen, toxikoen edo sorgogarrrien eraginpean dagoenean gertatutako istripuak.
- ✗ Delituzko, zuhurtziagabekeriazko edo zabarkeriazko egintzen ondorioak.
- ✗ Kirol-jarduerak egitea, txirrindularitza eta trekkinga izan ezik.
- ✗ Hezurren pitzadura edo guztiz hausten ez dena.
- ✗ Haustura patologikoa; intentsitate edo energia baxuko traumatismoek eragindakoa aurretik zegoen irregularitasun baten ondoriozko hezuraren ahulgune batean.
- ✗ Kolapsoaren edo hondoratzearen ondoriozko haustura, osteoporosi patologikoa dela-eta.
- ✗ Miokardioko infartuak, istripu baskularrak edo garunekoak, atake epileptiformeak, ezta haien ondorioak ere, nahiz eta ebazpen judizial batek edo Gizarte Segurantzako organo eskudunek "lan-istripu" gisa kalifikatu.
- ✗ Intsolazioak, izozketak eta tenperatura atmosferikoaren ondorioak.
- ✗ Elikagaiak hartzeagatik izandako intoxikazioa edo pozoidura.
- ✗ Tratamendu mediko-kirurgikoen ondorioak.
- ✗ Edozein eratako gaixotasuna.



Estaldurari dagokionez, badago murrizketarik?

Muga nagusiak honako hauek dira:

- ! Hezurra haustea eta erredurak: Kalte-ordainaren ehunekoak eta haren aplikazio-arauak kontratuan ezartzen dira.
- ! Ospitaleratzea: Kalte-ordainaren/estalduraren gehieneko epea 365 egunekoa da.
- ! Etxebizitza egokitzea: Egin beharreko obra motaren arabera kalte-ordainaren mugak Baldintza Orokorretan ezartzen dira, eta kalte-ordainaren gehieneko orokorra 6.000 eurokoa da.
- ! Eguneroko bizitzarako laguntza: Baldintza Orokorretan zehaztutako zerbitzuetarako sarbidea izateko, Aseguratuaren ospitaleratzeak 48 ordu baino gehiagokoa izan beharko du edo bere etxean mugitu ezinik egon beharko du 5 egun baino gehiago medikuak hala aginduta.

Bestelako mugak:

- ! Ospitaleratzea: Kanpo geratzen dira bainuetxe eta erietxeetako egonaldiak.
- ! Eguneroko bizitzarako laguntza: Eskaintako zerbitzuak zein horien ordu-kopurua esleitzeko autonomia-mailaren balorazio objektiboa hartuko da oinarri gisa, eta baloratuko dira mugitu ezinik egondako denbora, oinarrizko zereginak egiteko ezgaitasuna, lesioen larritasuna eta familia-egoera.



Non nago estalita?

- ✓ Etxebizitza egokitzeko eta Eguneroko Bizitzarako Laguntzako bermeetarako, zerbitzu-ematea Espainiako Estatura mugatuta dago, hura eragin duen istripua munduko beste leku batean gertatuta ere.
- ✓ Gainerako bermeetarako: munduko herrialde guztietan.



Zein dira nire betebeharrak?

- Aseguruaren urteko prezioa kontratuan ezarritako baldintzetan ordaintzea.
- Kontratua formalizatu aurretik eta haren indarraldian, arriskuaren balorazioan eragina izan dezaketen inguruabar guztien berri ematea Seguros Lagun Arori.
- Istripua izan dela jakin eta gehienez ere zazpi eguneko epean horren berri ematea.
- Eskura dauden baliabideak erabiltzea, istripuaren ondorioak arintzeko.
- Ezbeharrak ahalik eta egokien izapidetzen laguntzea, Seguros Lagun Arok eskatutako dokumentazioa aurkeztuz eta istripuarekin zerikusia duten jakinarazpen judizial, judizioz kanpoko edo administratiboekin berri emanez.



Noiz eta non egin behar ditut ordainketak?

Kontratua formalizatzeko unean eta haren urteroko berritze-datan egingo da ordainketa. Baldintza partikularretan jasotakoaren arabera egin beharko da, eta bankuan helbideratuz edo zenbatekoa bitartekariari entregatuz egin ahal izango da.



Noiz hasi eta amaitzen da estaldura?

Baldintza Partikularretan adierazitako egunean eta orduan hasi eta amaituko da aseguruak. Ondoz ondoko berritzeen ondoren, ordaindu den aseguru-aldia bukatzen den egunean eta orduan amaituko da. Aseguratuak 85 urte betetzen dituen aseguru-urteetik aurrera kontratua berritzeari utziko zaio.



Nola hutsaldu dezaket kontratua?

Jakinarazpen idatzia bidaliz, indarrean dagoen aseguru-aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete bat lehenago.